

Arantxa Hirigoyen, Philippe Albor, Amaia Carrere

Ttinka



 Belarri



TTINKA

Testua: Arantxa Hirigoyen

Musika: Philippe Albor

Marrazkiak: Amaia Carrere

Errealizazioa: Matthieu Haramboure



AURKIBIDEA

1. Iratzarri	2
2. Hodeia negarrez	3 - 4
3. Zapeta ta xapina.....	5
4. Hotsen balada	6
5. Kattalingorri	7
6. Ai ui oi sagarroi	8
7. Mirailari so	9
8. Ene bisaian	10
9. Argihizkia.....	11
10. Hunek	12
11. Tturr tturr.....	13
12. Jo ta jo.....	14
13. Hontzaren begilagunak	15
14. Koko bila.....	16
15. Lepoluze	17 - 18
16. Kanika	19
17. Haizea	20
18. Margotu	21
19. Trukatruck	22
20. Paperez	23 - 24
21. Kukuso	25
22. A po ttipi.....	26
23. Egun on, gau on.....	27
24. Bi esku ditut	28

IRATZARRI

Begiak ideki, emeki emeki

Egun on ! Egun on ! Egun on !

Beso bat luzatu bestea zabaldu


Egun on ! Egun on ! Egun on !

Zangoak lurrean

Xutik azkenean !

Egun on ! Egun on ! Egun on !







HODEIA NEGARREZ

Zerua triste, hodeia ere

Malkoak lodi, ditu isuri

Haizeak ufa, garbi zerua

Adio euri !

Kuku iguzki !



ZAPETA TA XAPINA

Zapeta ta xapina, beti beti kalapita

Zapeta ta xapina, beti beti kalapita

Zapeta beti kexu, kanpoan baita

Zapeta beti kexu, uda ta negu.

Xapina, beti alai, barnean baita,

Xapina, beti alai, Goxoki lasai

Zai zai zai

Zapeta ta xapina, beti beti kalapita

Zapeta ta xapina, beti beti kalapita



HOTSEN BALADA

Bixi-bixi ibili naiz
Putzuan plisti-plasta
bihotza taup-taup ari zait

Haizea senditu dut firi-fara
eta kili-kiliak egin dizkit

Ttuku-ttuku segitu dut bidea
Oihanean barna kraska-kraska
Hostoak klix-klax urratu ditut

Ttapa-ttapa etxerat heldu naiz
Kax-kax-kax jo dut atea
Kuku-miku! Badea norbait?



KATTALINGORRI

Kattalingorri, gorri, gorri

Bihar eguzki ala euri ?

Errazu... Errazu... Errazu....



SAGARROI

Ai ! ui ! oi ! Sagarroi

ileak xut-xut !

Ai ! ui ! oi ! Sagarroi

ileak xut-xut



xixta xixta sagarroi min egiten doi-doi

xixta xixta sagarroi min egiten doi-doi

MIRAILARI SO

Mirailari so, so

Mirailari so

Mirailari so, so, so

Ikusten dut : kopeta
lalalalala...

Ikusten dut : begia, kopeta,
lalalalala...

Ikusten dut : sudurra, begia,
kopeta, lalalalala...

Ikusten dut : ahoa, sudurra,
begia, kopeta, lalalalala...

Ikusten dut : kokotsa, ahoa,
sudurra, begia, kopeta, lalalalala...

ENE BISAIAN

Ene bisaian, ene bisaian, nota gerta !

Haserrea....

Beldurra....

Tristezia....

Zoriona !



ARGIHIZKIA

Izar

Zati bat

Ahoan sartu dut

R RRRRRRRRRRRR

R RRRRRRRRRRRRRR

Argitu zaizkit hortzak!

Ta argihizki bat hartu dut!

Ez mugil! Egizu irril!

Bat eta bi... argazkil!

Bat eta bi... argazkil!



HUNEK

Hunek xilo bat egin du

Hunek hazia landatu

Hunek lurra ureztatu

Hunek baratzea zaindu

Hunek lorea du bildu



TTUR TTUR...

Ttur ttur aitzinatzen karakoila
bizkar gainean bere kaiola.

Ttur ttur doa nik ez dakit nola
berant jitea ez zaio axola.

JO TA JO

Jo ta jo ! Denek betan.
Jo ta jo ! Erritmoan

Eskuetan 1, 2, 3, 4

Mateletan 1, 2, 3, 4
Eskuetan 1, 2, 3, 4

Sabelean 1, 2, 3, 4
Mateletan 1, 2, 3, 4
Eskuetan 1, 2, 3, 4

Isterretan 1, 2, 3, 4
Sabelean 1, 2, 3, 4
Mateletan 1, 2, 3, 4
Eskuetan 1, 2, 3, 4

Ipurdian 1, 2, 3, 4
Isterretan 1, 2, 3, 4
Sabelean 1, 2, 3, 4
Mateletan 1, 2, 3, 4
Eskuetan 1, 2, 3, 4
Jo ta jo ...



HONTZAREN BEGILAGUNAK

Gaur goizean, hontza da kexu
begilagunak galdu baititu

Gero, gero, gero atxemanen dituzu

Eguerditan, hontza da kexu
Begilagunak galdu baititu

Sarri, sarri, sarri atxemanen dituzu

Arratsaldez, hontza da kexu
Begilagunak galdu baititu

Bihar, bihar, bihar atxemanen dituzu

Arratsean, hontzak aski du
Begilagunik gabe da lokartu

Buru, buru, buru gainean dituzu!



KOKO BILA !

Ama ximino eta aita ximino

Koko bila! Koko bila!

Ama ximino eta aita ximino

Koko bila! Koko bila!

Ttipiendako... Koko bila!

Ttipiendako... Koko bila!





LEPOLUZE

Gora, gora lepoluze

Gora, gora zeruraino

Harro, harro lepoluze

Harro, harro luza lepo

Gora, harro puntaraino

Izarrak hunkitzeko !

KANIKA

Kani Kani Kanika Kanika
Kani Kani Kanika Kanika
Gorria berdearen truk

Itzulika itzulika...

Urdina arrosaren truk

Itzulika itzulika...

Ubela horiaren truk

Itzulika itzuli...



HAIZEA



Badoa haizea ufaka

Badoala arin-arinka

Airatu dira luma eta hosto

Biharko zaigu berriz etorriko

Gau on Luma ezti eta leuna

Gau on hosto arin eta goxo



MARGOTU

Margotu, tinda-tindatu

Ortzadar zubiak sortu

Margotu, tinda-tindatu

Zubiak sortu

Ibaitik ibaira, kolore dirdira

Ibaitik ibaira... Ibaira

Bidea ideki, lagundu elgarri

Bidea ideki... Ideki



TRUKATRUK

Trukatruk

Nik eta zuk

Trukatruk

Zuek eta guk

Denek kantatruk

Denek elkartruk



PAPEREZ

Paperez egin dut itsasontzi bat
Putzuan eman eta urperatu da

Paperez egin dut igel ttipi bat
Belar gainean utzi, ihes egin du

Paperez egin dut hegazkin bat
Zerura bota, hegal egin du

Papera hartu dut

Bihotz handi bat

Gorriz margotu, zuretzat opari



KUKUSO

Kuku, kuku,
kukuso

Gora, gora, eni so
Kuku, kuku, Kukuso

Kilikatzen ene beso !

APO TTIPI

A po ttipi, apo pottolo

A po ttipi ta pottolo

Zuretzat bi pott

Ta egizu lo





EGUN ON GAU ON



Egun on, eguzkia

eguneroko argia

hasi da egun berria

hasi da egun berria

Egun on, egun on, egun on

Gau on, ilargia

Izar dirdira bizia

Eginen dut lo handia

Eginen dut lo handia

Gau on, gau on, gau on





BI ESKU DITUT

Bi esku ditut

Bat eta bi



Hotz dute:

torra, torra!



Aspertzen dira

Itzul eri pototsak!

Ikusgarria bukatzean,

Txalo! Txalo!

Bi esku ditut

Bat eta bi

Agurtzen dute:

Adio! Adio! Ikus artio!



KANTARIAK

1. Iratzarri : Arantxa Hirigoyen eta Philippe Albor
2. Hodeia negarrez : Haize eta Philippe Albor
3. Zapeta ta xapina : Elsa Urruty, Haize Albor, Amaia Carrere
4. Hotsen balada : Izadi eta Ainhoa Gorostiaga, Arantxa Hirigoyen
5. Kattalingorri : Kamila Elizondo eta Amaia Riouspeyroux
6. Ai ui oi sagarroi : Nahia Amigorena
7. Mirailari so : Izadi eta Ainhoa Gorostiaga, Arantxa Hirigoyen, Haize eta Philippe Albor
8. Ene bisaian : Elsa Urruty, Gilen eta Oihan Iciaga, Ainhoa Gorostiaga, Arantxa Hirigoyen, Haize Albor
9. Argihizkia : Arantxa Hirigoyen eta Philippe Albor
10. Hunek : Ganix Diribarne Goyetche
11. Ttur ttur : Ainhoa Gorostiaga, Haize eta Philippe Albor, Maguy Mirande, Maider Cigarroa.
12. Jo ta jo : Kamila Elizondo, Gilen eta Oihan Iciaga, Arantxa Hirigoyen, Philippe Albor.
13. Hontzaren begilagunak : Elsa Urruty, Haize eta Philippe Albor
14. Koko bila : Gilen eta Oihan Iciaga, Elsa Urruty, Maguy Mirande, Maider Cigarroa, Amaia Riouspeyroux, Philippe Albor
15. Lepoluze : Elsa Urruty, Arantxa Hirigoyen, Philippe Albor
16. Kanika : Kamila Elizondo, Elsa Urruty, Gilen eta Oihan Iciaga, Maguy Mirande, Haize eta Philippe Albor
17. Haizea : Haize eta Philippe Albor
18. Margotu : Kamila Elizondo, Amaia Riouspeyroux, Elsa Urruty, Haize eta Philippe Albor
19. Trukatruk : Arantxa Hirigoyen eta Philippe Albor
20. Paperez : Haize Albor
21. Kukuso : Ainhoa eta Xumai Gorostiaga
22. A po ttipi : Kamila Elizondo, Amaia Riouspeyroux, Philippe Albor
23. Egun on, gau on : Haize Albor
24. Bi esku ditut : Arantxa Hirigoyen eta Philippe Albor



KREDITUAK

Hitzak: Arantxa Hirigoyen

Musika: Philippe Albor

Marrazkiak: Amaia Carrere

Ekoizpena. Grabaketa. Mix. Mastering: Matthieu Haramboure

KANTARIAK

Arantxa Hirigoyen. Philippe Albor. Haize Albor. Elsa Urrutty. Izadi, Xumai eta Ainhoa Gorostiaga. Gilen eta Oihan Iciaga.

Kamila Elizondo. Amaia Carrere. Ganix Diribarne Goyetche. Nahia Amigorena. Amaia Riouspeyroux. Maguy Mirande.

Maider Cigarroa.

MUSIKARIAK

Mixel Ducau: Saxo sopranoa (2, 5, 7, 8, 9, 11, 17, 23). Gitarra (13, 14, 17). Klarineta (3, 14).

Joseba Tapia: Eskusoinua (8, 9, 11, 16, 18, 19)

Philippe Albor: Gitarra (1, 3, 6, 13, 18, 19, 23), ukulele (8, 20, 21), banjo (2, 9, 16), perkusioak (1, 2, 7, 8, 9, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 18, 19, 20), melodika (6), metalofonoa (1, 16, 20), harmonika (2,0).

Matthieu Haramboure: Baxua (1, 2, 8, 12, 13, 16, 18, 19, 23), teklak (24).

Francesca Romana Di Nicola : Harpa (5, 11)

Pierre Latute : Zuba (3, 7, 9, 20, 21)


Betti Albor : Gitarra elektrikoa (19, 20)

MOLDAKETAK : Musikariak

MASTERING : Gorka Urra

Milesker haundi bat eta berezi bat Aña Carrere-i bere laguntzarentzat,
eta Txomin Larronde-i Milesker !





www.belarri.com

© Belarri Gazte - 2022

Lege gordailua : 2022ko apirila

1949ko Uztailaren 16ko 48-956 araua,

gazteendako argitazpeneri buruz

Antza Komunikazio Grafikoak imprimiturik

ISBN : 978-2-9582935-0-5

20€

9 782958 293505